ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2018ko martxoaren 16a, ostirala • 32 zk.

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Arauz kanpo erroldatuta egoteagatik udalaren biztanle erroldan ofizioz baja emango zaiola jakinaraztea interesdunari, helbide ezezaguna baitu (espediente zk.: 2017/7/S596)

Administrazio egintza jakinaraztea. Interesduna: Sarita Romero Bogado.

Erabaki hau ezin izan zaionez jakinarazi interesdunari, haren oraingo bizilekua ezezaguna delako, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 44. artikuluan agintzen duena betetzeko, iragarki hau BOEn eta, lehenago, nahi izanez gero, ALHAOn eta udal honen iragarki taulan argitaratuz jakinarazten zaio alkatearen 18/045 Ebazpena, zeinak hitzez hitz honela dioen:

"2018ko otsailaren 9an ebazpena eman zen (18/045 Dekretua); zuri dagokizunez, jakinarazten zaizun hau jasotzen du:

A. C. I. M.k, Lezamako 89 zenbakidun etxebizitzaren jabe den aldetik, 2017ko abenduaren 5ean aurkeztutako idazkiaren bidez udal honi jakinarazi dio Sarita Romero Bogado udalaren biztanle erroldan arauz kanpo erroldatuta dagoela, pertsona hori ez delako aipatutako etxebizitza horretan bizi eta, hortaz, ez dituelako betetzen Biztanle eta Lurralde Mugei buruzko Arautegiaren 54. eta 68. artikuluetan ezarritako betekizunak. Arautegi hori uztailaren 11ko 1690/1986 Errege Dekretuaren bidez onartu zen eta abenduaren 20ko 2612/1996 Errege Dekretuaren bidez aldatu zen.

Ikusirik udaltzainek egindako txostena, ondorioztatzen da pertsona hori ez dela etxe horretan bizi.

Bat etorriz arautegi horrek 72. artikuluan xedatutakoarekin eta Estatistika Institutu Nazionaleko lehendakariak eta Autonomia erkidegoen eskumenak eta toki erakundeenak koordinatzeko zuzendari nagusiak, biek batera, 2015eko urtarrilaren 30ean emandako ebazpenarekin, zeinaren bidez udalei jarraibide teknikoak ematen baitzaizkie biztanleen udal erroldaren kudeaketari buruz eta, zehazki, bidegabeki inskribatuta egoteagatik baja emateari buruz, eta, bat etorriz, orobat, aplikazio bidezkoa eta orokorra dagokion gainerako legeriarekin, alkatetza honek, legez esleituta dituen ahalmenak erabiliz, honako hau xedatzen du:

Lehenengoa. Aurkeztutako eskaera izapidetu dadin onartzea, eta ofizioz espedientea abiaraztea ondoren azaltzen den pertsonari baja emateko Amurrioko Udalaren biztanle erroldan, arauz kanpo erroldatuta egoteagatik:

IZENA ETA DEITURAK		AGIRIA
1	SARITA ROMERO BOGADO	58.047.426-A

Bigarrena. Eragindako pertsonari ebazpen hau jakinaraztea udalerri honetan izan duen azken helbide ezagunean, hamabost eguneko epean aukera izan dezan egoki jotzen dituen agiri eta frogagiriak aurkeztu eta egiaztatzeko udalaren biztanle erroldan zuzen erroldatuta dagoela, edo, bestela, bere errolda egoera erregularizatzeko, udal honi jakinaraziz helbidea nora aldatu duen edo egun zein udalerritan bizi den.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Alkateak agindu eta izenpetzen du. Amurrio, 2018ko otsailaren 9a. Fede ematen dut nik, idazkariak. Alkatearen eta idazkariaren izenpe eta errubrika elektronikoak.

Jakin dezazuen eta dagozkion ondorioak izan ditzan jakinarazten dizuet."

Amurrio, 2018ko martxoaren 7a

Alkatea
MIREN JOSUNE IRABIEN MARIGORTA

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, OU=ZIURTAGIRI ONARTUA - CERTIFICADO RECONOCIDO, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 108817
Fecha de firma: 2018.03.16 06:35:24 Z